

Mikel Irizar

GIPUZKOAKO HIZKUNTZA BERDINTASUNEN ZUZENDARIA ♦



DANI BLANCO

Apalaldia edo...

ZORROZTASUN HANDIRIK GABE “apalaldian gaudela” esan nion kazetariei, euskararen biziberritzeaz ari ginela. Eta biharamunean Anjel Lertxundi nuen galdezka —ondo zorrotz— ea nola geunden zehatz: umil apatiko, dekadentzia ala barealdian. Egun gutxira, gai beraren bueltan Patxi Baztarrikak zioen berak “geldialdia ez” baina bai “ziurgabetasuna” ikusten zuela.

Hitzak hitz, uste zabaldua da bizi-berritze prozesuaren erritmoak ari direla apaltzen, eta orain arteko ekin-tzak errepikatze hutsarekin ez ditugu la orain arteko hazkundeak errepikatuko. Alegia, berrikuntza dosi handiak beharko ditugula aurrera begira. Zertan? Hona nire lehentasunak.

IKERKETA ETA ZIENTZIA. Herritarrei galdetu egin behar zaie bere hizkuntza jokabideen zergatiak, eta erantzunei zientzia ezberdinak aplikatu.

Ikerketa/zientzia binomioak emango digu oinarria epe luzeko estrategiak marrazteko eta horien arabera-ko plangintza zehazteko. Erakundeen ahalmenari eta gizartearen ekimenari erantsiko genieke hirugarren erpin bat, ezagutzarena, eta triangelu horretan orekatuko lirake indarrak, funtzioak eta osagarritasunak.

TOKIKO AKTIBAZIOA. Euskaltzaletasuna zimeldu egin da profesionaltasunak gora egin ahala. Uste dut ezinbestekoa dela berreskuratzea auzo, udal eta

eskualdeka dinamika moderno bat euskaltzaleak aktibatuko eta elkartuko dituen, bai “profesionalak” (hautetsi, teknikari edo sektorekoak) eta bereziki militantak (euskara elkarte eta gizarte eragileetakoak).

DISKURTSOEN EGUNERAKETA. Oso garrantzitsua

da nola azaltzen ditugun gauzak eta nola argudiatzen politikak. Diskurtso bakarra baino, hainbat behar ditugu; elkarren artean koherenteak, noski, baina hartzaile ezberdinei egokituak. Adibidez, udan hartu nuen zuzendaritzari izena aldatze soilak ate ugari ireki dit, espero nuenetik askoz harago.

BLINDATZE POLITIKOA. Kargu berrian egiaztatzen ari naiz une ego-kia dela hitzunen arteko zoru komuna definitzeko, askatasuna, berdintasuna eta justizia oinarri hartuta; eta posible dela zoru komun horren

gainean akordioen aro berri bat abiatzea, euskara biziberritzeko prozesua liskar politikoetatik blindatu-ko lukeena.

Esandako ezer ez da guztiz berria, are gutxiago nik asmatutakoa. Baina sinetsita nago berrikuntza dela, ezer baino lehen, jarrera bat. Eta ditxosozko apalaldi, geldialdi edo ziurgabetasunak horixe ekar lezakeela —hain zuzen— opari: gu denongan piztea berrikuntza-rako jarrera. ■

Oso garrantzitsua da nola azaltzen ditugun gauzak eta nola argudiatzen politikak. Diskurtso bakarra baino, hainbat behar ditugu; elkarren artean koherenteak

JOSU SANTESTEBAN



Edu
Zelaieta



IDAZLEA

Izki inguruan

UNIDAD ALAVESA berpizteko moduko egoera ikusi dugu Izki inguruan: gaztainak batzen topatu ditugun guztiak, onddo bila zebiltzan pertsonak oro eta paretan eskalatzaren ari ziren denak *bizkaitxarrak* edo *giputxiak* ziren. Bidaideak ohartarazi didanez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, baso gehienak publikoak dira (sarean ikusi dudanez, %82 dira herri lurak). Halaber, oihan publikoen kopurua nabarmena da Nafarroan eta Iparraldean: %50 baino gehiago eta %40 inguru, hurrenez hurren. Auzia argitzen segitu du adiskideak: Euskal Herriaren bihotza omen diren Bizkaian eta

Gipuzkoan pribatizatuak daude baso gehienak aspalditxo eta, ondorioz, erabile-ra industrialeko pinudiz josiak ageri dira maiz bertako bazterrak; horregatik aurkitu omen ditugu hainbeste bizkaitar-gipuzkoar alderdi publiko hauei *etekin partikularra* ateratzen.

Nolanahi ere, amaierarako utzi nahi izan du solaskideak kolpe ozena: “Euskal natura eta euskal kultura ez datoz bat elkarrekin”. Hori dela-eta, Euskal Herriko berezko natura ikusi edota gozatu nahi duenak hobe du *periferiara jotzea*; Izki ingurura, kasurako. ■